



PETAN MIHIKU

Paul Guilsou

Iturria: *Petan Mihiku: erri-egiteko ikusgarria hirur zatitan*, Paul Guilsou.
Imprimerie du Courier, 1951.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/G/GilsouPetan.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

PETAN MIHIKU

Irri egiteko ikusgarria hirur zatitan

Paul Guilsou-k euskaraz antolatua, Moliere-n lan batetarik

Baiona, 1951



LEHEN ZATIA

LEHEN MINTZALDIA

Kanpoan, Petanen etxe-aitzinean.

Petan, Mai-Koxepa

PETAN: *(Egur-xehatzeko trunko baten gainean jarririk, zigarreta baten egiten).*

Tra-la-ta-la, la-la-la...

MAI-KOXEPA: *(Erkatza eskuan etxetik ateratzen da).* Ernatu gogo duk hortik, Petan?!

PETAN: *(Kantuz)*

May-Koxepa maitea, ez bada hasarra;

Zuk eta nik badugu elkarren beharra

Zu ene bihotzean zintuzket bakarra..

Zu baino eztitxago ez balitz nafarra

MAI-KOXEPA: Egur buit ez diagu gehiago etxean eta... hi, hor, kantuz deskantsuan!

PETAN: Norat dut presa?

MAI-KOXEPA: Habil egur egiterat.

PETAN: Ez dut egun zotzik eginen. Ala.. nor da hemen nagusi?

MAI-KOXEPA: Ezetz? Uste duk nerekin auzia irabaziko dukala?... Atzo igandea, hordi, egun astelehena, burua haundi! Ez nauk ez ni hire hola jasaiteko ezkondu!

PETAN: A, etxean emaztea, zer gurutzea!... No, zaharrek sekulan erran badine egia bat, eta hau hala erran dine: «Emazte-buru, debru-buru».

MAI-KOXEPA: Gaizo Petan; orai erran zaharretan!

PETAN: Gaizo Petan ba... No, hatxeman, Eskual-Herrietan egur-egile bat, arrazoinka niri nagusituko denik. Ni bezala, mihiku famatu batekin sei urtez mutil egonik, bertze batek, nik bezala, haren jakitate guziak ikasiko zitinan?

MAI-KOXEPA: Tresna, alaina!

PETAN: Hi haizen bezalakoa.

MAI-KOXEPA: Egund ederra,, baietz erran nuena.

PETAN: Ba, segurki. Urkatu banintz, hobeko ninan.

MAI-KOXEPA: Hik behar duk erranguratu! Gure Jainkoari egunero esker-rrak emaitako izanki eta!... Merexi huen ni bezalakoa?

PETAN: Kontexko hintzen, no, ni haixemaiteaz.

MAI-KOXEPA: Zer derasak? Kontent?... Etxea errekarat eremanki dautan gizonarekin, edale batekin, kontent! Denen jateko baizik ez den gizonarekin!

PETAN: Gezurra: parte edaten dinat.

MAI-KOXEPA: Bederazka, etxe-barneko guziak saltzen dauztak, eta!

PETAN: Hori dun etxeko-etzeko bizitzea.

MAI-KOXEPA: Ohea bera kendu dautak!

PETAN: Goizago ernatuko haiz.

MAI-KOXEPA: Hots, muble bat ez zaiat gehiago etxean gelditzen.

PETAN: Nagusi dun hola, Jondone-Martine egiteko.

MAI-KOXEPA: Goizetik arrats jokoan eta edaten.

PETAN: Denbora pasa.

MAI-KOXEPA: Bainan, Petan! Anartean, zer nahi duk egin dezatan?

PETAN: Nahi dunana.

MAI-KOXEPA: Lau haur ttiki besotan...

PETAN: Pausa'zkin lurrean.

MAI-KOXEPA: Ixtant guzian ogia galdez.

PETAN: Zaharoarekin emoten. Nik, ontsa jan eta edan dutalarik, denak airean ikusi nahi ditinat!

MAI-KOXEPA: Haizen bezalakoa! Galeretako sortua haiz hi.

PETAN: Bazuken: galerarik aski ikusten dinat segurik hirekin.

MAI-KOXEPA: Uste duk, beti hola bizi beharrak gara?

PETAN: Emazu polliki, burregoa.

MAI-KOXEPA: ...hire manerak jasanen ditudala?

PETAN: Ez gaiten hasarra, muñuñu!

MAI-KOXEPA: ...eta ez dutala hire oneratzeko molderik hatxemanen?

PETAN: Gaixo muñuñu, badakizu, soberak ere sobera direla?

MAI-KOXEPA: Futitzen nauk hire mehatxuez.

PETAN: Nere andre ttiki muñuñu hutsa, zer duzu, bizkarra hotza? Beroaldi bat hartu nahia?

MAI-KOXEPA: Uste duk izitzen naukala?

PETAN: Nere izarra, nere bihotza, niri zerbait hartu nahia duzu? Ez duzu ebatsia izanen...

MAI-KOXEPA: Arraileroa!

PETAN: Harrapatzen bazaitut...



MAI-KOXEPA: Herresta.
PETAN: Harrapatzen bazaitut...
MAI-KOXEPA: Ustela, ez bertzea!
PETAN: Joko zaitut?
MAI-KOXEPA: Ez diat gaizki irri egiten, to, hitaz!
PETAN: Xehatuko zaitut?
MAI-KOXEPA: Herbaila! Hunki nezak, ikusteko?
PETAN: Hilan zaitut eta tripak eginen?
MAI-KOXEPA: Faltso, zirtzil, ausart, traidore, ohoin, lapur, tripa haundia!
PETAN: Hireak eta bat gehiago hartuko ditun. (*Erkatza harturik, jotzen, du*).
MAI-KOXEPA: Atx! Atx! Atx!
PETAN: (*Beti joka*). Horra goxa-gailua.

BIGARREN MINTZALDIA

Petan, Mai-Koxeпа, Gizona

GIZONA: Oi! oi! oi! oi! Zer dugu hemen! Apailu hau bere andreari jokal!
PETAN: Jo nezan on bazaut!
MAI-KOXEPA: Zer behar duzu hemendik?
GIZONA: Huts egin dut.
PETAN: A! Ontsa.
MAI-KOXEPA: Ez da zure ikustekoa?
GIZONA: Hala da..
MAI-KOXEPA: Zer duzu sudurra hemen sartzeko?
GIZONA: Deusik.
MAI-KOXEPA: Okupa zaite zure egitekoez.
GIZONA: Ez dut gehiago pitsik erranen.
MAI-KOXEPA: Hola nahi dut.
GIZONA: Bon, bon.
MAI-KOXEPA: Ez duzu zuk senditzen?
GIZONA: Egia da.
MAI-KOXEPA: Nahasi zoro bat zare, deus ikustekorik ez duzunetan sudurra sartzeko. (*Eta mazelako bat emaiten dio*).
GIZONA: Barkatu Pettan. Emazu, emozu zeha-aldi bat ona zure andreari... Nahi duzu esku-ukaldi bat emaita?
PETAN: Ez jauna.

GIZONA: A! Hori bertzerik da!
PETAN: Joko dut nahi badut eta, nahi badut, ez!
GIZONA: Ederki.
PETAN: Nere andrea da, eta ez zurea.
GIZONA: Segurki eta beharrik.
PETAN: Ez da zuri, manatzea.
GIZONA: Hala da.
PETAN: Hala bada, eta ez bada, ez dut zure laguntza beharrik! Utz gaitzazu, gu, bakean.
GIZONA: Bakean? Ontsa da!
PETAN: Ozar bat zare, bertzeen egitekoetan hola sudurra sartzeko. Ez duzu behin ere aditu, zuhaitzaren eta erriaren artean ez dela azala sartu behar... edo zerbait holako?... Ta, ori! (*Erkatza ukaldika igortzen du*).

HIRUGARREN MINTZALDIA

Petan, Mai-Koxeпа

PETAN: (*Gibeletik gizonari beha, kantuz*)
 «Joaiten naiz jaun-andre (bis)
 heien baketzera;
 Umaturik hor naute
 igorri etxera».
 (*May-Koxeпа ni*) Errazu baketu behar dugu, ekazu esku.
MAI-KOXEPA: Bai, jo ondoan!
PETAN: Ez da hori deusik.. Emazu hunat bortzekoa.
MAI-KOXEPA: Ez.
PETAN: Are.
MAI-KOXEPA: Ez.
PETAN: Gaixoa!
MAI-KOXEPA: Eetz.
PETAN: Are, bada!
MAI-KOXEPA: Ez, deusetan ere.
PETAN: Xauri, xauri.
MAI-KOXEPA: Ez, hasarre nauk!
PETAN: Bo, ezdeuseria horren gatik! Are, are bada.



MAI-KOXEPA: Utz nezak.

PETAN: Ekazu ba'esku.

MAI-KOXEPA: Sobera gaizki erabili nauk.

PETAN: Barkamendu galdatzen dautzut orduan. Emadazu esku.

MAI-KOXEPA: Barkatzen dauiat... Bainan, hago ixtant bat, hago.

PETAN: Zoroa behar zintezke, hortaz malezia atxikitzeko. Holako huskeria batzu on dire noizean behin adiskide egoiteko; bospasei erkatz ukaldik, elgar maite dutenen artean amodioa azkartzen baizik ez dute... Ori, egurrerat noazu, eta egiten daukitzut, egun, bortz pilota-egur.

MAI-KOXEPA: (*Gibeleitike*) Hoa, hoa, begitarte ona egiten badaiat ere, ez diat, ez, ahantziko. Nolazpeit mendekatuko nauk, bai. Emaztekiak hatxemaiten dik beti mendeka-bidea.

LAUGARREN MINTZALDIA

Mai-Koxeпа, Piarres, Leon

PIARRES: Debruenaxoa! ez diagu, to, lan txarra hartu bigek eta ez zakiat zer hatxemanen dugun.

LEON: Ze na'uk, gaizoa, nagusia nagusi.

PIARRES: Ba, ez diagu, ez, pitsik galduko Bordaberrirekin, norbait hatxemaiten bazioiagu, emaztegeia sendatuko diona: esku-zabala dik; sari ederrari beha gauzik. Alta Mainerrek ez dik hura gostukoa; Andre nahiago likek; aitak aldiz. deus ez aditu nahi.

LEON: Andre, laborari seme.

PIARRES: Eta nagusia, zer duk bera, eihara zain bat! Nahi diat, azkar: ohointzatik aberastua... Etxeko seme ona likek bada...

MAI-KOXEPA: (*Barnetik*) Mendekatzeko, bazakia zer egin.

PIARRES: Bainan zer eman zioz buruari, ez dutenaz geroz deusik egiten abat izan?

LEON: Gertatzen dut hatxemaitea, bilatzearen medioz; eta, batzutan, uste ez den lekuan zagok erbia lo.

MAI-KOXEPA: Ez duk deus egitekorik; zernahi gostarik ere, mendekatu behar diat. Erkatz ukaldi horiek min egiten zautae. Ez diat hartan utziko gure Petan,... eta..., (*Etxe aitziñerat agertzen da*).

Barkatu, jaunak; ez zintuztedan ikusten, eta zer nahi buru-hauste baitut, nere buruarekin eleketan ari nintzen.

PIARRES: Bakotzak bere kezak eta errangurak; gu ere, ontsa nahi ginuken zerbaiten ondotik gabiltza.

MAI-KOXEPA: Laguntzen ahal zaituztet?

PIARRES: Beharbada. Gizon abil bat behar ginuke; mihiku bat bertzeak ez bezalakoa. Nagusiaren alaba, pikoiz mututurik baitago, hura senda lezaken norbait. Mihiku batek baino gehiagok beren jakitatea han utzia dute; bainan izaiten dire batzutan gizon abilak, sendabide harrigarriak berekin daukatenak, beren burutikako erremedio berezi batzuri esker, bertzeek egin ez dezaketena ardiesten baitute. Horra, guk zer gizon bilatzen dugun.

MAI-KOXEPA: (*Bere buruari*). Ederki jina duk, (*Piarres-i eta Leon-i*). Ori, ez zintezketen hobeki eror. (*Bere buruari*)

PIARRES: Ba zera! Ta, nori da?

MAI-KOXEPA: Zer parada! (*Berriñ bi gizoneri*). Badugu gizon bat, —halako guti baitabila bazterretan—, eri etstituentzat hauta dena. Hortxetan ikusiko duzue, orai, egurrean ahusatzen.

LEON: Mihiku bat egurrean?

PIARRES: Oihanean dela erran nahi duzu, aire hartzerat ateraia?

MAI-KOXEPA: Ez. Ilargi-jo, halako bere gisako tresna bat da. Ez zinukete sekulan, erranen hanbateko izpirituko gizona dela. Eta haren bezi-moldea! Iduri du zaku gaizki josi bat... Gehiago dena, badaki ederki astoarena egiten bere jakitatearen gordetzeko.

PIARRES: Bitxi da: kaskoz norbait diren guziek, nola izaiten duten erro-aire bat jakitatearekin nahasteka.

MAI-KOXEPA: Ezin sinetsia da, zein erroa den gure delako gizona: pentsa! sendatzeko duen ahala aitortu baino lehen, joka ibili behar izaiten da, alaintso. Eta hitz dautzuet, buruari emaiten badio, ez duela bere jakitatea agertu behar, makil bana harturik, beharko diozkatzue bereak eman, deusik ateratzeko-tan haren ganik. Holaxe egiten dugu, haren beharretan garelarik.

LEON: Ez duk guti erroa, haatik!

MAI-KOXEPA: Ez dakizue ontsa!... Bainan, gero ikusiko duzue, gauza harrigarriak eginen baitauzkitzue.

PIARRES: Zer du gero, izena?



MAI-KOXEPA: Petan! Ezagut erretxa da bere mustatx beltzekin eta galtza-ipurdi pedazatuekin.

LEON: Jesus! mihi ku bat, galtza-ipurdi pedazatuekin!

PIARRES: Ba, banian, egiazki, diozun bezain abila da, gero?

MAI-KOXEPA: Ba, ta nola! apezari ikusiko ez ditutzuen mirakuiluak egiten ditu, gizona. Ori, erraiteko baizik ez da: duela oraino sei hilabete, bazen emazteki bat mihiku guziek alderat utzia... sei oren hartan hiltzat zaukaten; jada beztitua, biharmunean ehortzi beharra, ta... joaren bortxaz, ekarrarazten dute delako sorgina. Harek... emaiten... ez dakit zertarik, ttintta bat ahoan, eta emaztekoa heldu zaiote sukaldelat, iduri ta deusik ez.

LEON: Jesus, Maria!

PIARRES: Zer debru da, bada, zuen gizona?

MAI-KOXEPA: Debrua? Batere ez da fidatzeko. Dena den, duela hiru aste, hamabi urteko mutiko bat ez zen ezkilategitik erori eta zango-beso-lepo hezurra hautsi! Gure gizona ekarrarazi, ta... harek, berehala.... berak eginikako gantzugailu mixteriozko batekin... torratu bezain laster, xutitu zen eta pilotan aritzerat joan.

LEON: Jesus, Maria ta Josepe!

PIARRES: Orduan, mihikuntza guzia errotik badaki gizon horrek.

MAI-KOXEPA: Dudarik ezin.

LEON: Bo, maitea, hara gure gizona heldu! Joan gaizkon biderat.

PIARRES: Esker hainitz, etxek'anderea, egin daukuzun zerbitzuaz.

MAI-KOXEPA: Nik erranez orroit!

LEON: Zaude trankil! Jotzea aski bada, laster gurea dugu gizona.

PIARRES: (*Leon-i*). Hau egiteko errekontrua.

BORTZGARREN MINTZALDIA

Piarres, Leon, Petan

PETAN: (*Kanpotik, «Sotoko oporraren» airean*) Tra-la-la-la...

LEON: Hura duk, hura, kantuz ari.

PIARRES: Gauden hemen berean.

PETAN: (*Aitzina kantuz*)

«Gero zait hasten
Bihotza hozten,

Agortzen zintzurra,

Laster dut eskuratzen sotoko oporra. »

Pufa! To, badiagu, ba, aski egur eginik. (*Eta berrix kantuz*)

«Gorputza baitut sano, arpegia gorri,

Hortako dute nitaz zerbait erran nahi,

Bainan ez naiz ni

Nehoz ibili

Oraino moxkorra...

(*kantatu gabe*) Atzo azkenik! (*Irri-karkailaz*) Ha, ha, ha. ha. (*Eta bere kantuari jarraikiz*).

...Izana gatik maite sotoko oporra. »

Hats har dezagun, eta, edan (*Gero, bidean, eskalapoinen harrabotsa, ezagun*).

PIARRES: Hara, heldu, bere eskalapoin haundiek.

LEON: Hura duk, ba; ez duk dudarik.

PIARRES: Xo, xo. Utz'ak parreraino jiterat.

PETAN: Kanta dezagun, barneak hala galdatzen zautak. (*«Pipa hartu ta'ren airean*).

«Urrundu zaizkit aiskideak

Eta hurbildu ostalerak...»

Nor dituk gizon hauk gure etxe-aitzinean? Ez ahal diltiat ostatuko aita-semeak (*Kantuz*).

«...Etxean aldiz emazteak

Prest-presta ditu erasiak.»

Bainan, zer ditek, hauk, niri hola beha?

PIARRES: Agur jauna; zu zare Petan deitua?

PETAN: Zer nahi zinuten?

PIARRES: Zu zaitugunez Petan?

PETAN: Ba... eta... ez, ea zer nahi diozuen.

PIARRES: Hari gure agurrak egin nahi.

PETAN: A! Orduan ni naiz Petan.

PIARRES: Bazinaki, jauna, zer atsegina egiten daukuzun. Zui ganat igorri gaituzte, eta... zure, laguntzaren galdez heldu gare.

PETAN: Guk egiten ahal dena balinbada, eginen dugu.

PIARRES: Ederki, ederki.

LEON: Atxik'azu, atxik gapelua buruan; iguzki kolpe bat bil zinezake.

PETAN: Hauxek dituk gizon plaixentak! (*Eta gapelua, barnaxago sartzen du*).



PIARRES: Ez zaitela harri, jauna, zure ganat jinik ere: kaskoz norbait direnen ondotik ibiltzen da jendea; eta, jakin dugu, zer ahal haundiko gizona zaren.

PETAN: Egia da. Ez da segur munduan gizonik, egur-egiten nagusituko zautanik.

PIARRES: A!

PETAN: Ez naiz laneko lotsa; ez baitut nahi, nere egurraz nehork izan dezan deus erraitekorik.

PIARRES: Ez gare hortaz mintzo.

PETAN: Ba, bainan... bi mila libera saltzen dut, gero, pilota-egurra.

PIARRES: Orai, bertze solas, nahi baduzu!

PETAN: Hitz dautzuet, ez dezaketela gutiagotan eman.

PIARRES: Badakigu hori.

PETAN: Hori balinbadakizue, badakizue zenbak egiten dutan pilota-egurrean.

PIARRES: Trufatzea da, hola...

PETAN: Ez naiz batere trufagura, bainan ez nitake merkeago ari.

PIARRES: Aski hortarik: bertzerik badugu elgarrekin aipatzeko.

PETAN: Bertzetan merkeago aurki dezakezue, nere pilota-egurra bezalakorik, ez.

LEON: Pilota-egurra, zernahi izan eta ere! Bainan, bego. Jainkoaz, hori hortan.

PETAN: Utz, nahi baduzue, bainan, ni hemen naizen bezain egia da, hola-ko pilota-egurrik ez zinuketela prezio hortan ukanen.

PIARRES: Bainan, ez gare hortarat jinak.

PETAN: Ez eta ez; bi milako hori beharko duzue, ala fede, pagatu. Zinez ari naiz gero, ni! Ez naiz, beren mozkinak biperretan saka-tu nahi dituztenetarik.

PIARRES: Errazu, jauna; ez da batere eder, alegia ez konprenituarena, hola, egitea. Denek badakite berdin, zein mihiku famatua zaren.

PETAN: Burutik badik, hunek.

PIARRES: Ez gutaz liberti.

PETAN: Nola?

LEON: Zure ingura-mingura guziak eta gaineratekoak alferretan diregurekin, dakiguna baitakigu.

PETAN: Zer bada?. Zertaz ari zarezte? Norentzat naukazue

PIARRES: Zaren mihiku famatuarentzat.

PETAN: Ni mihiku?... Ez naiz hala ez eta izan egundaino.

PIARRES: (*Leon-i*) Horra! Erro-bultan diagu. (*Petan-i*). Hala dena, ez gehi-ago uka eta ez gaitzatzula, xuhur baduzu, onetik ateraraz; bertzela azken bideak hartuko ditugu.

PETAN: Zer egin gogo dautazue?

PIARRES: Batere atsegin ez ginukena.

PETAN: Nahi duzuen eginen dautazue, bainan ez naiz mihiku, eta ez dakit, zer derasazuen.

PIARRES: Gure lanari lotu beharko diagu... (*Petan-i*). Azken aldikotz gal-datzen dautzut: aitor'azu zer zaren.

LEON: Ez gehiago maltzurkerian ari hola, eta aitor'azu lañoki mihiku zarela.

PETAN: Errabiarazten nauzue, ori.

PIARRES: Zertako, guri, dakiguna uka?

LEON: Zer irabazten duzu hola, zure mihikugoa gordez?

PETAN: Batetarat heldu da, erran dezazuetian hitz batez ala bi milez: ez naizela mihiku!

PETAN: Ez!

PIARRES: Ez zarela mihiku?

PETAN: Ezetz!

PIARRES: Hola denaz geroz, behar dena eginen dugu. (*Makilakin joka hasten zaiŕko*).

PETAN: Atx, Atx, Atx! Zer nahi baituzue izan, nadin eta hala naiz.

PIARRES: Zertako huntaraz gu bezalako gizon prestuak?

LEON: Ez daukuzu batere atsegin egiten.

PETAN: Ta, uste duzue niri atsegin egiten dautazuela? Zer demuntre da istorio hau?... Espres ari zarezte ala... zuen buru-kolpea da mihiku izan nadin?

PIARRES: Zer? Ez duzu oraino amor eman gogo?

LEON: Ez zarela mihiku, diozu?

PETAN: Ez dizaket hala ez dena erran.

LEON: Ez da egia, mihiku zarela

PETAN: Ez eta ez! (*Berriz jotzen dute*). Atx, atx, atx... Bon, beraz, mihiku naiz, jaunak, eta barber ere, hala nahi baduzue. Nahiago dut, zernahi onhartu, holako ukaldiak hartu baino.

PIARRES: Hola, jauna, hola. Ez da goizegi.

LEON: Hori da, hori, gizonki mintzatzea.

PIARRES: Barkatu, eman ukaldiez.

LEON: Barkatu, egin minaz.



PETAN: (*Bere buruari*). Hi ari ote haiz, bada, makur, Petan? Zer haiz, mihi-ku bilakatu oharkabean?

PIARRES: Ez duzu urrikirik izanen, nor zaren agertzeaz.

PETAN: Bainan.... errazue, jaunak... ez nauzue enganatzen bederen?... Zinez ari zarezte, mihiku naizela?

LEON: Segurki, hala baitzare.

PETAN: Segur.

LEON: Segur baino segurago.

PETAN: Debruentxoa! Ederra diagu.

PIARRES: Zer? Munduko mihikurik abilena zare, ta!

PETAN: A! A!

LEON: Ez dakit zenbat eri haundi sendatu dituen mihikua!

PETAN: Egundaino! Hau badiagu zerbait haatik!

PIARRES: Sei oren hartan hila zen emaztekoa, jada chorztekotan zutena, zuk ahoan ttintta zerbait emanik, berebaitaratu duzu, eta kurri abiatu da.

PETAN: Holakorik baditakela! Debruentxoa, debruentxoa!

LEON: Hamabi urteko mutiko bat ezkilategitik erori da behin; zango-beso-lepo hezurra hausten zituela... eta zuk, ez dakit zer gantzu-gailuri esker, xutik abiarazi eta pilotan aritzerat joan zen.

PETAN: Oisus!... Eup, Mai-Koxepa! Aditzen dun?

PIARRES: Hots, jaun mihikua,...

PETAN: Jaun mihikua! Ha, ha, ha, ha!

PIARRES: Ontsa helduko zare gurekin. Eta, nahi duzuna irabaziko duzu...

PETAN: Nahi dutana irabaziko dutala?

PIARRES: Ba!... Guk eremaiten ditugun etxerat jitea onhartzen baduzu.

PETAN: A! Segurki mihiku bainaiz. Ahantzia nuen orai gogoratzen zaut... Zertaz da istorioa? Norat joan behar dut?

PIARRES: Gurekin eremaiten zaitugu. Neskatxa bat behar duzu ikusi, mintzoa galdua duena.

PETAN: Ez dut, nik, hatxeman, ez, haren mintzoa.

PIARRES: (*Leon-i*) Arralleria maite dik (*Petan-i*) Goazin.

PETAN: Zer? Hola? Mihiku beztitu gabe?

PIARRES: Soinekoak emanen dauzkitzugu, bai, guk.

PETAN: Bon. (*Piarres-i*). Zuk, eremazu hau (*botoila emaiten dio*); hortan erabiltzen ditut tixanak. (*Leon-i buruz itzulirik, lurrerat tu egiten du*). Zu, zoazi horren gainetik; hola da mihikuaren manua.

LEON: Jesus, Jesus! Hau mihiku erremental! Ba, bihi batek sendatzekotan, hunek eginen dik.

BIGARREN ZATIA

*Nagusia*ren etxean

LEHEN MINTZALDIA

Nagusia, Piarres, Leon

PIARRES: Ba, nagusia; daukat, kontent izanen zarela; munduko mihiku hoberena ekarki dautzugu.

LEON: Ba, ta, ez dela pikaren azken umea; bertze mihikuek ez dute horren zapeta zolako zikina ere balio.

PIARRES: Gauza harrigarriak egiten dituen gizona dugu.

LEON: Hilak sendatzen dituen.

NAGUSIA: Pizten?!

LEON: Hilak xutiarazten, ba!

PIARRES: Bainan bitxiskoa da, erran dautzutan bezala; eta, baditu mementuak, burutik joaiten baita, eta ez baitu iduri den bezain balio.

NAGUSIA: Ez diagu bertze beharragorik.

LEON: Arralleria maite du; eta, iduri du batzutan burutik xilo.

PIARRES: Bainan... funtsez... dena jakitate eta kasko da; izigarri ederki mintzo ere, da.

LEON: Ba, hain ederki mintzo da, iduri baitu, liburutik mintzo dela.

PIARRES: Jada famatua da; eta denak horren gaxiat dabilta beren erran-guretan.

NAGUSIA: Ontsa ikusi nahiz nago; ekarraraz zazue.

PIARRES: Banoa bila.

BIGARREN MINTZALDIA

Nagusia, Leon

LEON: Mirakuiluak eta guziak egiten omen ditu.

NAGUSIA: Zer demuntre duk bada hori?



HIRUGARREN MINTZALDIA

Nagusia, Leon, Petan, Piarres

- PETAN:** Huna, nagusia, zure jaun mihikua.
NAGUSIA: Agur, jaun mihikua; milesker hola jiteaz; ontsa zure beharretan aurkitzen baigare.
PETAN: Lehengo mihiku famatu batek dionaz, ez dugu, ez nik eta ez zuk, hola buruhas egon behar.
NAGUSIA: Hala baitiote mihikuek?
PETAN: Ba.
NAGUSIA: Ez banaiz kurios, zeinek dio hola?
PETAN: Zerak... xapel eta gapeluaz mintzo den harek.
NAGUSIA: Mihikuek hola diotenaz geroz, hola eginen dugu.
(Bigele gapelluak burua n emaiten dituzte).
PETAN: Jaun mihiku hunek ikasiak baititu gauza miresgarriak...
NAGUSIA: Nori mintzo zare, jauna?
PETAN: Ta, zuri!
NAGUSIA: Bainan ez naiz mihikui, ni.
PETAN: Ez zare mihiku?
NAGUSIA: Ni? Ez!
PETAN: Ez? Egia?
NAGUSIA: Egia ezetz.
PETAN: *(Makila ferratu bat dilindatik harturik, panpatzen du nagusia oibuka ari den artean).* Orai mihiku zare, ez dut nik ere egundaino bertzel eskolarik ukan mihiku izaiteko.
NAGUSIA: Zer gizon ekarri dautazue hunat?
PIARRES: Erran dautzut. nagusia, bitxiskoa zela.
NAGUSIA: Zela? Dela erraiten ahal duk.
LEON: Etzazula gaizki har, nagusia, jostatzeko egiten du hori.
NAGUSIA: Ni, ez nauk jostagura.
PETAN: Barkatu eman ukaldiez.
NAGUSIA: Zure zerbitzari, jaun mihikua.
PETAN: Pena dut nere funtsean.
NAGUSIA: Ez da, deusik.
PETAN: Barkatu egin minaz.

- NAGUSIA:** Ez dut minik.
PETAN: Hobe segurki zuretzat: e ben! xantza duzu, ori.
NAGUSIA: Bego hortan.
PETAN: Ba, hobe da; arrazoina duzu.
NAGUSIA: Jaun mihikua, alaba bat badaukat eritasun mixteriozko batek joa...
PETAN: Atsegin dut, jakiteaz alaba nere beharretan duzula; eta, zerbitzu bera egiten ahal izan dezazueta, gauza bera dautzuet desiratzen zuri eta zure etxeko guzieri.
NAGUSIA: Milesker jauna, zure desirez.
PETAN: Ez'ta'zen. Sinesten ahal nauzu gero, barnez eta zinez ari naizela.
NAGUSIA: Hau ohorea egiten daukuzuna!
PETAN: Nola deitzen da zure alaba?
NAGUSIA: Maider.
PETAN: Maider! Izenaren araberako izana balinbadu, ez da gaizki.
NAGUSIA: Berehala ekarraraziko dut. *(Leon-i).* Hoa, ean prest den. Orai ekarriko dautzute, jaun mihikua.
PETAN: Datorla, nahi duelarik; nere, mihikuntza guziarekin goaitatzen dut.
NAGUSIA: Non duzu... mihikuntza?
PETAN: *(Kopeta hunkituz).* Hemen, barne huntan.
NAGUSIA: Ederki.

LAUGARREN MINTZALDIA

Nagusia, Petan, Piarres, Maider, Leon

- PETAN:** Hau dugu eria
NAGUSIA: Bai. Nere haur bakarra; eta, jada alargun bainaiz...
PETAN: Ez ditutzu malur guziak, beraz.
NAGUSIA: ...hau hilzerat heldu balitzaut, galtze lazgarria litake neretzat, bakar-bakarrik geldi bainindake.
PETAN: Ez duzu ez galduko. Egin dezala, ori, holakorik! Ez du, alabainan hil behar mihikuaren manua gabe.
NAGUSIA: Jartzeko zerbaite, are.
(Mutilek kadirak ekartzen dituzte erdirat)



PETAN: (*Aita-alaben erdian jarririk*). Huna eri bat, ikusteak atsegin egiten baitaut. Gizon gazte batek, bera osasunekoa izanez gero, ez du zeren utz.

NAGUSIA: Irri eginarazi diozu, jaun mihikua.

PETAN: Hobe: mihikuak erriari irri eginarazten dionean, ditaken seinale-rik hoberena duzu. (*Maideri*), Ta! Zer gertatzen zautzu? Zer senditzen duzu?

MAIDER: (*Eskua aldirika aborat, bururat, kokotserat emanex*). Han, hin, hon, han.

PETAN: Zen derasazu, haurra?

MAIDER: (*Aitzina, berdin*) Han, hen, hin, hon, han.

PETAN: He?...

MAIDER: Han, hin, hon, hen...

PETAN: Zer demuntre duzu mintzaire hori? Han, hor eta hemen? Ez dautzut deusik konprenitzen!

NAGUSIA: Hori da, jaun mihikua horren gaitza. Bet-betan mutu gelditu da; eta, orai arte, ez dugu jakiten ahal izan, nola. Horren gatik gibelatu behar izan du bere ezkont eguna.

PETAN: Ta, zertako?

NAGUSIA: Senar-geiak, gauzak ontsa egin nahiz... sendatu arte, igurikatu gogo baitu.

PETAN: Nor ere baita, zer zoroa ditakena! Andrea, mutua ez na.hi? Nerea, hola balitz, ez nuke, ori, nik sendatu nahiko, saritan ere!

NAGUSIA: Dena den, zure ahalak egizkitzu, jauna; ez dautzugu bertzerik galdatzen.

PETAN: Bo! Ez odol gaistorik egin.... Errazu, ta.. gaitz horrek akitzen du?

NAGUSIA: Ba, jauna.

PETAN: Hobe... Hainitz sofritzen du?

NAGUSIA: Izigarriki.

PETAN: Ederki egina da... Joaiten da dakizun toki hartarat?

NAGUSIA: Ba, ba...

PETAN: Jori?

NAGUSIA: Ez dakit zer erran nahi duzun.

PETAN: Behar bezalako gauza?

NAGUSIA: Ez dut pitsik konprenitzen.

PETAN: Berdin munta du... (*Maideri*). Luza zazu besoa. (*Foltsua hartzen dio; ixtan bat ixilik egonik, karkulan bezala nagusiari.*) Foltsu hunek... irakusterat emaiten du... zure alaba... mu-tu-a dela.

NAGUSIA: Ta, ba, hori du, alabainan bere gaitza. Lehen kolpetik haitxeman duzu, jaun mihikua.

PETAN: Ha! ha!

LEON: Jesus! Nola hatzemaiteko eritasuna.

PETAN: Guk, mihiku haundiek, lehenik gauzak ezagutzen badakigu. Bertze mihiku petrikilo txar horiek izanen zuten lanik, aski; eta emanen zautzuten «hau du. hura du», nik aldiz, tankean hatzeman dut. Eta, erranen dautzut (*Xutitzen da eta nagusiaren ganat badoa*)... pena egin bear badautzut ere..., zure alaba gaixoa... mutua dela!

NAGUSIA: Ba, bainan, erran nahi bazinaut, nondik heldu zaion, hori?

PETAN: Ez da gaitz: ...mintzoa... galdua duelakotz.

NAGUSIA: Segurki... Eta mintzoa... nolaz galdua duen?

PETAN: Gure gizon jakintsun guziek erranen dautzute: mihia... ez zaiolakotz... behar bezala ibilki.

NAGUSIA: Ba... Oraino, mihiko traba hori, zerk ematen ote dio?

PETAN: Aristoteles gizon aipatuak hortaz dio... ba, erraiten ditu, ba, harek biziki egia ederrak.

NAGUSIA: Baitake.

PETAN: A! Gizon kasko gaitzekoa zen hura!

NAGUSIA: Nor ere baita.

PETAN: Gaitza. gizona, gaitza; gizon bat (*eskuz keinua eginez*) ni baino oraino haundiagoa... Beraz... gurerat joanez, beretik ari gaiten. Daukat, mihiko traba hori... aire batzutarik heldu zaiola; guk, sabantek, umoreak deitzen ditugu; erran nahi baita... ba... umoreak! Eta, gaitza sortzen den aldetik ateratzen diren delako aireak heldu dire... erraiteko maneran... zererat... eta... Latina ikasia duzu?

NAGUSIA: Ez.

PETAN: (*Brau xutiturik*) A? Ez duzu latina korrenprenitzen?

NAGUSIA: Ez eta hitzik ere.

PETAN: (*Lorietan, abo-betean*) CABRICIAS ARCI THURAN, CATALAMUS, SINGULARITER, NOMINATIVO, HAEC, EST MUSA, erran nahi baita; musa. BONUS, BONA, BONUN edo bonoa. DEUS, DEUS. SANCTUS, EST-NE ORATIO, LATINAS, latinez. ETIAN: bai. QUARE, zertako. QUIA KUIA ez bada kuiatxo. SUBSTANTIVO edo buztana. ET ADJECTIVUN CONCORDAT, konkorra IN GENERI, NUMERUN, numeroa, ET CASUS, eta kasu...



NAGUSIA: A! Oxala, ikasi banu hola latina.

PIARRES: Zer eskola dukena!

LEON: Ba, ederki mintzo duk; nik ez diat segurik debru pitsik konprenitzen.

PETAN: Beraz, aipatu aireak, ezkerretik, han baita gibela... eskuinerat, bihotzaren alderdirat... joaitean... bularrak, latinez «armiarm» deitzen ditugunak... hauk, buru-fuineri, grekaz «nahasmihiz» lotuak baitire... buru-fuinetarik bihotzerako zainari, hebreoz, «cubile» erraiten diogunari esker... bidean aurkitzen ditu delako aireak, lepa-uztaiaren barnean direnak: eta... delako umoreak... konprenitu behar duzu ontsa arrazoinamendua... eta beraz, delako umoreak kaltekorrak baitire... Kalsu'mazu huni...

NAGUSIA: Bai, bai.

PETAN: Kaltekorrak baitire... zeraren gatik. eta... ba, zaude, erne.

NAGUSIA: Dena bearri nagozu.

PETAN: Zeraren gatik, eta... bearri... ziloetan.. sortzen diren aire minkor batzuen gatik... huna zer gertatzen den... OZADUN DUZ, erran nahi baita: azak onduz... NEQUEIS, NAQUER, edo aise, POTARIUN, QUIPSA MILUS. Horra zergatik den zure alaba mutua.

PIARRES: Gizonaren kasko gaitza eta aho ederra!

LEON: Eta mihi azpiko zaina ontsa pikatua duela!

NAGUSIA: Hau arrazoinkaria! Ez ditake segur; nehor hobeki ari... Gauza batek estonatu nau haatik, jaun mihikua. Gibelaren... eta... bihotzaren lekuak. Iduritzen zaut, ez ditutzula xuxen emaiten; bihotza dela ezkerreko aldean..., gibela aldiz eskuinekoan.

PETAN: Ba, lehen hala ziren; bainan, guk, denak aldaratu ditugu lekuz, eta orai, mihikuntzan arras bertz alderat jotkatzen gare.

NAGUSIA: A! Hori ez bainakien. Barka nere ignorantzia.

PETAN: Ez, da makurrik; ez duzu, alabainan, gu bezain argitua izaiterik.

NAGUSIA: Hori hala da. Bainan, jaun mihikua, zer egin behar dela, iduritzen zautzu?

PETAN: Niri iduritzen zautana, egin behar dela.

NAGUSIA: Ba... Ta?

PETAN: Nik, daukat, oherat joan bear duela berriz, eta, erremediatzat harrarazi behar zaiola etxe ogi zearra bat ederra arnoan bustirik.

NAGUSIA: Zertako hori, jaun mihikua?

PETAN: Senda dadin!

NAGUSIA: Bainan, nolaz, ogi eta arnoa!...

PETAN: Huna: arnoak eta ogiak, elgarrekin, nahastekatuak direlarik, indar berezi bat baitute, mintzarazteko... Ez zare ohartu, perruketeri ere ez dela bertzerik emaiten, eta, hura janez, ikasten dutela mintzatzen?

NAGUSIA: Hala da. A! hau gizon gaitza!.. Fite, arnoa horri, eta ogi zerra bat ederra.

(Eria ganberarat laguntzen dute).

PETAN: Aratsaldean berriz agertuko naiz.

BORTZGARREN MINTZALDIA

Nagusia, Petan

PETAN: Sarri arte.

NAGUSIA: Zaude ixtant bat, plazer baduzu.

PETAN: Zer nahi duzu?

NAGUSIA: Pagatu, jaun mihikua,

PETAN: *(Ateratzerat egiten balu bezala, gibelat eskua hedatuz).* Ez dut hartuko.

NAGUSIA: Jaun mihikua, zure pena...

PETAN: Deusik.

NAGUSIA: Zaude.

PETAN: *(Beti eskua gibelat. hedatna).* Ezetz.

NAGUSIA: Oto!

PETAN: Trufatzen zare.

NAGUSIA: *(Dirua emanaz).* Horra egina.

PETAN: *(Dirua eskuan).* Ez dutala nahi.

NAGUSIA: He!

PETAN: Ez nau diruak erabilki, gero, ni.

NAGUSIA: Pentsatzen dut. *(Maider ateratu ate beretik badoa).*



SEIGARREN MINTZALDIA

Petan, Andre

PETAN: (*Aterat buruz doalarik*). To, ez duk gaizki, alaintso, agian...

ANDRE: (*Sartzean*). Aspaldian zure goait nindagon, jaun mihikua; zure beharretan bainaiz.

PETAN: (*Folsua berehala harturik*). Huna folsu bat, ontsa eri.

ANDRE: Ni eri?.. Osasun onean naiz, Jainkoari esker.

PETAN: Hainbat gaisto, jauna. Holako osasunarekin beldurtzeko duzu; sangratzea on zinueke.

ANDRE: Sangratu? Zertako, ez eri izanki eta?

PETAN: Igual du; on da. Nola geroko elgarriaren gatik edaten baita, orobat jaten geroko gosearen gatik, hala-hala behar da sangratu geroko eritasunaren gatik.

ANDRE: Bainan ez naiz eritzekotan, eta ez dut erremediotan hasi gogo.

PETAN: Zergatik ez duzu beraz berehala garbiki erran, ez zinela hortarat heldu?

ANDRE: Barkatu, jaun mihikua; huna bi hitzez: Andre deitzen naiz; eta, orai ikusten izan zaren Maider... gostukoa nuke. Eta... harek ere... ni naski; bainan... aitak ez nahi... Hola ausartatzen naiz zuri laguntza galdetzerat... haren ikusteko...

PETAN: Norentzat naukazu?.. Zer! Zure amodiaren zerbitzuko hartzerat ausartatzen zare; eta nere mihikugoa holako lan batetarat ekarri nahi!

ANDRE: Ez, otoi, jaun mihikua, hainbertze harrabots egin!

PETAN: Nik, harrabots haundia egin nahi dut. Eta, zu, ez deus gizon zare... eta. ozar bat, kontuaren gainceiko.

ANDRE: He! Eztiki, jauna.

PETAN: Jakin zazu, ez naizela hortarako gizona, eta.. gaizki-ikasi bat zarella.

ANDRE: (*Moltsa ateraturik*) Jauna.

PETAN: Ni lan hortaratuko?... (*Andreke dirua emaiten dio*). Ez naiz ez zutaz mintzo; zu gizon gisakoa zare; eta Jainkoaren lorian, zuri zerbitzu egiterat nagozu. Baitire, aldiz, jende ausart batzu, beren buruak ez dakit norentzat dauzkatena; halakoek errabiarazten naute.

ANDRE: Barka, jauna, nere ausartzia.

PETAN: Zertaz da zure arrangura?

ANDRE: Ori, jauna, sendatu nahi duzun Maider-en eritasuna alegiazkoa da. Mihikuak xuxen ari ziren, bai; eta erran dute ere garbiki batek, buru-fuinetarik heldu zaiola hertzetarik, bertzeak; hirugarren batek, gibeletik; bertze batek, baretik; bainan egia hau da: amodia mina duela, eta, gogo-kontra ezkontarazi nahi zutenarekin ez egiteko, asmatua duela, Maider-ek eritasun hori... Bainan elgarrekin ikus gaitzaten beldur naiz. Goazen; bidean erranen dautzut xeheki zer nahi dutan zutarik.

PETAN: Are oa... Zure kasua biziki gustatzen zaut; nere mihikuntza guzia hortan joanen da: edo eria zurea izanen da, edo... leher egin behar du,



HIRUGARREN ZATIA

LEHEN MINTZALDIA

(Berriz ere nagusiaren etxean)

Petan, Andre

ANDRE: Iduritzen zaut, botikario batentzat, ez naizela gaizki... Eta... Mainer-en aitak ez bainau usu ikusia... hola forjaturik-eta, ez nau ezagutuko, naski.

PETAN: Ez, ez.

ANDRE: Nik orai behar nukena, mihikuntzako bospasei hitz sabant jakin, gizon abilarena egiteko.

PETAN: Ba uz'azu; ez da hori baitezpadakoa... beztimenda aski duzu... Nik ere ez dakit zuk baino gehiago.

ANDRE: Zeee?

PETAN: Debruentxoa, ni hemen naizen bezai, egia da, bada, ez dutala, mihikuntzan debru pitsik konprenitzen. Hori... gure arteko! Zuri salatzen dautzut hola, den bezala, zu're niri ixilka arizan baitzare.

ANDRE: Nola?.. Ez baitzare egiazki...

PETAN: *(Irri maltzur batean)*. Ez, ez, ez.... eta enuen behin e jakintsun izaittea gogoan pasaturik; nere eskolak?.. irakurtzen eta izkiriatzen jakiteko doia izanak dire! Ez dakit zer eman dioten buruari... bainan baitezpada mihiku nahi nautenaz geroz, goazin hortarik... erien gustuz!

Bizkitartean, bazinaki, nola famak kurritu duen! eta denek gizon abiltzat bainaukate!.. Alde guzietarik heldu zaut jendea.. eta gauzak orai arte bezain ongi joaitekotan... bizi guzia mihikuntzan ari gogo dut, alaintso.

Ofizioetan hoberena dela daukat; zeren, egin dezatan ongi gaizki, berdin pagatua naiz!.. Eta, lanik gaistoena, ez dugu, gero, mihikuek: guk, pika... motz... eta ken, nahi duguna egiten dugu. Alabainan, eskuetan emaiten dauzkuten larru-haragihezurrekin. Zapetain batek, larru muttur bat bota... zape-

tan fundi dezala.... ederki gostako zaio!.. Gure ofizioan, aldiz, gizon bat fundi dezagula, deus ez zauku gostatzen... Guk egin hutsak, ez dire, sekulan gure gain, beti hiltzen denak du falta... Eta, gehiago dena, mihikuntzak bertze on bat ere, badu: hilak arras jende gisakoak dire: ez duzu sekulan aditu bakar bat ere bere mihikuaz arrangurutzen, honek hilarazia badu ere!..

ANDRE: Ez da erraitekorik; hil guziak jende ixilak dire.

BIGARREN MINTZALDIA

Petan, Andre, Nagusia

NAGUSIA: A! huna jaun mihikua!.. Zure ondotik nindabilan.

PETAN: Kanpoanizan naiz, botoila huntako tixanaren husten.. Nola da eria?

NAGUSIA: Gaizkixago, zure erremedioaz geroz.

PETAN: Hobe... Bere efetua egiten diolako marka, hori.

NAGUSIA: Ba, bainan, efetua egitean, ez badu itotzen.

PETAN: Ez odol gaixtorik egin!.. Azken hatsetan izaiten delarik, ikusiko duzu, nola hatxemanen dutan...

NAGUSIA: Hau... nor dugu? *(Andre ez du ezagutzen)*.

PETAN: *(Soineko xuria irakutsiz)*. Zera da...

NAGUSIA: Zer?.

PETAN: Eriak zeriten...

NAGUSIA: He?

PETAN: Zeriten dituen...

NAGUSIA: A!.. Orai konprenitzen dut.

PETAN: Zure, alabak izanen du hunen bearra.

HIRUGARREN MINTZALDIA

Petan, Andre, Nagusia, Maider, Leon

LEON: Nagusia, huna zure alaba, poxi bat kurri ibili nahia.

PETAN: Bai, on egingen dio. *(Andre-ri buruz)*. Jaun botikarioa, har zozu foltsua, gero, zurekin ikus dezadan, zer heinetan duen bere



gaitza. (*Nagusia lepotik harturik, burua ez dezan itzul*). Jakintsunek, beren artean ezin xuri duten hauzia da, ean gizonak baino errexago den emaztekien sendatzea... Galdatzen dautzut, ontsa eskuta dezazun hau: batzuk, baietz diote; bertzeek, ezetz; eta nik... diot: baietz eta ezetz. Alabainan, emaztekiek dituzten umoreak direla medio, heien sendimenduari gaina hartzen du gorputzaren indarrak eta... ilargia zeharka ibiltzeak sainjatzten diozkate ideiak. Iguzkiak, aldiz, lur-ziloketan azkarki joiten baitu, hatxemaiten ditu...

MAIDER: Lehengo bera naiz; ez naiz kanbiatu...

NAGUSIA: Horra! Nere alaba mintzo!... Oi! Erremedioaren indarra! Hau mihiku gaitza!.. Eskerrak emaiteko daukitzut, jaun mihikua, sendatze harrigarri hau ardietsirik. Zer egin dezaket zuretzat?

PETAN: (*Harat-hunat dabilala, begitarteari gapeluekin haize ta naize*) Zonbaitba gostaia dut!

MAIDER: (*Aitari aiertuz*). Ba, aita, mintzoa jin zaut Bainan, orai, berriz mintzo banaiz, jakin azu, ez dutala sekulati onhartuko Andre-z bertze senarrik, eta alferretan ari zarela, Bordaberri-ko semea niri eman beharrez.

NAGUSIA: Bainan...

MAIDER: Deusek ez nau ideiaz kanbiaraziko.

NAGUSIA: Zer?

MAIDER: Debaldetako litake niri arrazoinka hasten.

NAGUSIA: Zeriten badut...

MAIDER: Nahi duzuna egiten ahal duzu.

NAGUSIA: Nik...

MAIDER: Igual du, aita, deliberatua naiz...

NAGUSIA: Zerak...

MAIDER: Ez da aitik ez bertzerik, gogo kontra, ezkontaraziko nauenik.

NAGUSIA: Nik....

MAIDER: Zuk elta bertzeek nahi dituzuen entseguak egiten ahal dituzue.

NAGUSIA: Bainan...

MAIDER: Nere bihotzak ez dezake bertze biderik har.

NAGUSIA: Harek...

MAIDER: Serora joan nahiago dut, maite ez detan gizonarekin ezkondu baino.

NAGUSIA: Bainan...

MAIDER: Ez, nehola ere, ez. Denbora galtzen duzu. Ez dut nahi.

NAGUSIA: Hunat elasturia! Ezin ixildua da! (*Petan-i*) Berriz beharko duzu mutuarazi, jaun mihikua.

PETAN: Hori ez dut posible. Izaitekotan,, zu elkorraz, ba, nahi baduzu.

NAGUSIA: Eskerrik aski. (*Maideri*). Uste dun beraz..

MAIDER: Ezetz, aita; zure arrazoinamendu guziak ez naute ideiaz sanjaraziko.

NAGUSIA: Bihar berean. Bordaberri-ko Mattin-ekin ezkondu behar dun.

MAIDER: Lehenago joanen naiz lurperat.

PETAN: Debruentxo! Aski hortarik! Uz'nezazue gauza horren xuxentzerat. Eritasun bat da hori; eta badakit zen erremedio eman behar zaion.

NAGUSIA: Zer? Jauna, buruko eritasun hori ere senda baitezakezu!

PETAN: Ba... Utz'azu nere gain; badut denentzat erremedio. Eta, gure botikarioak lagunduko gaitu eriarri behar diren mainen emaiten. (*Andre-ri*) Ikusten duzu, Andre'rekin zer heinetan den, eta aitak ez duela deusik aditu nahi?.. Ez da haratik ez hunatik, umoreak gaistatzen hasiak dire; eta... gaitZ horrentzat behar da, lehen-bai-lehen erremedio bat hatxeman. Luzatzerat utziz, gauzak makur litazke... Nere iduriko... ez da bertze erremediorik... ihesgoko purga baizik... Aski duzu, hura ezkontzako sakramenduarekin nahastekatzea... horiek guziak piluretan.

Beharbada, ez du erremedio hori, hastean hartu nahiko; bortixkoa izanen zaio orobat; batnan, zu, gizon aditua baitzare ofizio hortan, zuri da deliberaraztea eta harraraztea... Zoazte, itzuli bat egin azue; ni, aitarekin egonen naiz; ez haatik denborarik gal. Erna hor. (*Andre ateratzen da Maiderrekin*).

LAUGARREN MINTZALDIA

Petan, Nagusia

NAGUSIA: Zer dire, orai aipatu dituzun pilura horiek? Ez dut naski, orai arte egundaino aditu, holako erremediorik bazela ere.

PETAN: Eritasun etsituetan erabiltzen ditugun herrauts batzu dire.

NAGUSIA: A! To, to, to... Eta... behin'e ikusi duzu holako neska ozarrrik?

PETAN: Ba, nexkatxak. kasko gogorrekoak izaiten dire, batzutan.



NAGUSIA: Ez zinezake sinets, Andre-z zenbatetaraino zoratua den.
PETAN: Odolaren suak berotzen diote, gazteeri burua.
NAGUSIA: Eta bihotza!
PETAN: Ba. eta bihotza.
NAGUSIA: Eta nik, zerbait bazutela, ohartu orduko... badakizu, zer egin dutan? Etxean atxiki nene alaba.
PETAN: Zuhurki.
NAGUSIA: Eta behar zirenak egin ditut, ez zezaten elgar ikus.
PETAN: Ederki.
NAGUSIA: Behar ez zena gertatuko zen, bertzela.
PETAN: Berdin, ba.
NAGUSIA: Kapable zen nere alaba, harekin joaiteko.
PETAN: Ez da, batere fidatzeko.
NAGUSIA: Jakina naiz, mutikoak bortz ahalak egiten dituela gure neskaren ikusteko.
PETAN: Ihizia!
NAGUSIA: Bainan ez du izanen hortako paperik.
PETAN: A! A!
NAGUSIA: Ez da hurbilduko, ez, ni naizeno.
PETAN: Ez du, alabainan. gaizo batekin afera, eta... zuk jakinki harek ez dakizkan xikanak?... Zu bain abilago dena ez da arras astoa.

BORTZGARREN MINTZALDIA

Petan, Nagusia, Leon

LEON: (*Sartzen da lasterka*) Jesus, Maria ta Josepel! Hauxe da ixtorioa! (*Nagusia*) Nagusia, nagusia! alaba ihesi joan zautzu botikarioarekin! Horra mihikuak egiteko lana!
NAGUSIA: Maider joan?.. Oi, oi, oi, oi! Zerk hatxeman nauen!... (*Leon i*) Are, polizarat telefona fite! Ez zazuela eskapatzerat utz!.. (*Petan-i*) A! Herbaila! Ontsa, gostako zauk, egin dukan joko! (*Besoak goiti altxaturik, zoratua bezala.*) Oi! Azkenean, hiritar-botikario botiga batek ereman behar zautan alaba! (*Ateratzen da.*)
LEON: A! ala fede! Jaun mihikua, urkatzea merexi duzu! Ez zaitela hemendik higi, xuhur baduzu!

SEIGARREN MINTZALDIA

Petan, Leon, Mai-Koxeпа

MAI-KOXEPA: A! Ez da goizegi!.. Nik ikusi ditudanak, etxe hau ezin hatxemanenez!.. Emaiten ahal dautazu, nik erran. mihikuaren berri?
LEON: Huna non dagon umilxko!.. Urkatzea merezi luke.
MAI-KOXEPA: Zer?... Nere senarra urkatu?... Egundaino!... Eta, zer egin du hortako.
LEON: Nagusiarren alaba eskaparazi.
MAI-KOXEPA: Gaixo nere gizona!... Egia dea, egiazki urkatuko hautela?
PETAN: Ikusten dun!.. A!
MAI-KOXEPA: Urkatzerat utziko duk hire burua, hainbertze jenderen aitzinean?
PETAN: Ze'na'un nik egitea!
MAI-KOXEPA: Egurra... dena egina izan bahu bederen, ez nikan holako pena izanen.
PETAN: Ha'il hemendik!.. Erdiratzen dautan bihotza.
MAI-KOXEPA: Ez. Hemen egon gogo diat, hire hiltzen laguntzeko. Eta... ez haut utziko, urkatua, ikusi arte.
PETAN: A!

ZAZPIGARREN MINTZALDIA

Petan, Nagusia, Mai-Koxeпа, Leon

NAGUSIA: (*Sartzean*) (*Petan-i*) Istantean komisarioa ekarraraziko dugu: eta... leku segurean ematen zaituzte. Han izanen duzu zure kondua.
PETAN: (*Belaunikaturik*) O! Zenbait makil ukaldik e'lezakete egin afera.
NAGUSIA: Ez. ez. Jujeen errantik joan behar da. Bainan... nor dugu hau?

ZORTZIGARREN MINTZALDIA

Petan, Nagusia, Mai-Koxeпа, Andre, Maider, Leon



NAGUSIA: (*Aitzina, Andre ta Maider sartzen ikustearekin*). Eta, hauk, hemen?

ANDRE: Jauna, huna, non duzula zure aitzinean, Andre, aixtiko botikarioa, eta... huna ere, berriz zure eskupean, Maider. Lehenik ihesari emaitokotan izan gare zure alaba ta bigak; bainan, zuzen-bidetik joan behar dugu... Ez dautzut alaba ebatsi gogo; zuk emanik nahi dut.

NAGUSIA: Andre!.. Ori! Zure egitatea gustatzen zait! Eta nere alabaren zuretzeko bidea aurkitu duzunaz geroz, ez da, zurekin, lau karriketako hirian galduko nere alaba! Gogotik emaiten dautzut emaztetzat.

ANDRE: Milesker!

PETAN: (*Andre-ri*). Gutik egin du, gure mihikuak ez baitu gatilua hautsi!

MAI-KOXEPA: E'hutenaz keroz urkatzen, eskerrak emaiteko dautzak... Ni naizela medio haiz, gero, mihiku!

PETAN: Ba, hi haizela medio hartu ditinat segurik panpak!

ANDRE: Azkenean, denak ongi ateratzen baigare, barka zozu, barka, zuk ere.

PETAN: Eman dautanan ohorearen gatik, barkatzen dautzkinat hartu makil-ukaldiak... Jakin zan, haatik, errespetu haunditan beharko dunala atxiki ni bezalako gizon errespetagarria.